

GAZTAINA BILTZEN. Piezen letrak

Memoria kantua:

- Ama, ekarzu papa

Ama, ekarzu papa!

Haurra, apezak du giltza!

Joan nintzen apezarengana nahi nuela giltza,
apezak esan zidan nahi zuela arrautza.

Joan nintzen oiloarengana nahi nuela arrautza,
oiloak esan zidan nahi zuela gari.

Joan nintzen alorrarengana nahi nuela gari,
alorrak esan zidan nahi zuela ongarri.

Joan nintzen behiarengana nahi nuela ongarri,
behiak esan zidan nahi zuela belar.

Joan nintzen soroarengana nahi nuela belar,
soroak esan zidan nahi zuela igitai.

Joan nintzen arotzarengana nahi nuela igitai,
arotzak esan zidan nahi zuela urdai.

Joan nintzen txerriarengana nahi nuela urdai,
txerriak esan zidan nahi zuela ezkur.

Joan nintzen arbolarengana nahi nuela ezkur,
arbolak esan zidan nahi zuela haize.

Joan nintzen itsasoarengana nahi nuela haize.

Itsasoak niri haize,

nik arbolari haize,

arbolak niri ezkur,

nik txerriari ezkur,

txerriak niri urdai,

nik arotzari urdai,

arotzak niri igitai,

nik soroari igitai,

sozoak niri belar,
nik behiari belar,
behiak niri ongarri,
nik alorrari ongarri,
alorrak niri gari,
nik oiloari gari,
oiloak niri arrautza,
nik apezari arrautza,
apezak niri giltza,
nik amari giltza,
amak niri papa,
nik hartu eta jan,
ondotxo irabazia da eta!

Irainak:

- Kalekume
- Gizajo

Zotz egiteko:

- Zurrun, boton, bota botera, zirrikila fuera, eskanda la bida, fuera

Asmakizunak:

- Zer da ez duenak duenari ematen diona? (Lotsa)
- Zer da ez duenari kendu behar zaiona, eta duenari eman behar zaiona? (Arrazoa)

Hiztegia:

- Morkots
- Matxarda
- Eskorta
- Mihuri